

# Rockaren bilakaera nazioarteko testuinguru ekonomikoan

**Asier García Lupiola**  
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea - Elcano (UPV-EHU)

1950eko hamarkadaren hasieran musika-genero berri bat sortu zen Estatu Batuetan, munduan berehala zabaldu zen fenomeno bihurtua: rock-and-rolla. Protesta-mugimendu bilakatu zen, eta planeta osoan hedatu zuten artistek eta taldeek, Hirugarren Industria Iraultzan nazioartean izandako gertaera handien bilakabidearen eraginpean. Hain zuzen ere, nazioarteko harreman ekonomikoek eragin handia izan dute rocka fenomeno planetario bilakatzera eramanean duen bide horretan, eta funtsean ekonomian sorburua duten nazioarteko gertaera nabarmenen aurrean salaketarako eta gizartearen nahigabea adierazteko bozgorailu bihurtu da aldi berean.

GAKO-HITZAK: Herri-musika · Rock · Munduko ekonomia · Globalizazioa.

## The evolution of Rock in the international economic context

At the beginning of the 1950 decade a new musical genre emerged in the United States which quickly became a worldwide phenomenon: rock and roll. Its transformation into protest-movement which extended over the planet was possible because a lot of artists and groups were influenced by the evolution of the great international events that took place during the Third Industrial Revolution. Precisely, international economic relations have been an influential element for the conversion of rock into a planetary phenomenon, which has served as an expression of social discontent against major international economic events.

KEY WORDS: Popular music · Rock · World economy · Globalization.

## 1. Sarrera

Rockak oraingo munduko herri-musikaren estilo eta genero desberdinak hartzen ditu bere baitan, nahiz eta fenomeno sozial bat izan, musikaz harago doana<sup>1</sup>. Bere agerraldiaren aurrekariak hauek dira: 1930eko hamarkadan gitarra elektrikoa asmatu izana eta 1940ko hamarkadan Amerikako Estatu Batuetan (AEB) musika beltza eta musika zuria elkartu izana. Bigarren Mundu Gerraren (BMG) ondoren ezarritako nazioarteko ordena ekonomiko berrian agertu zen rocka; beraz, Serbiak adierazten duenez (2018: 23), baldintza politiko eta ekonomiko espezifiko batzuen emaitza izan zen (ongizate-estatu keynesiarra, kontsumo-gizartea, herritartasun-eskubideen garapena).

Protesta-mugimendu bilakatu zen rocka, eta planeta osoan hedatu zen, azken hirurogeita hamar urteetan nazioartean izandako gertaera handien bilakabidearen eraginpean. Hain zuzen ere, nazioarteko harreman ekonomikoek eragin handia izan dute rocka fenomeno planetario bilakatzerantz eraman duen bide horretan, eta funtsean ekonomian sorburua duten nazioarteko gertaera nabarmenen aurrean salaketarako eta gizartearen nahigabea adierazteko bozgorailu bihurtu da aldi berean. Beraz, esan daiteke rocka duela gutxiko historia eta oraingo gertaerak ulertzeko oinarria dela, garai aldakor bat baino gehiagoren soinu-banda izan dela, eta gazteek nahi luketen mundua deskribatzen duela (Assante, 2008: 8-9). Are gehiago, XX. mendearen erdialdetik, aldaketa sozial masiboekin batera pertsona ugari agertu ziren herri-musika egiten zutenak eta beste milioika gehiago musika hura entzun, dantzatu, eta haren bitartez euren bizitza bizitzen zutenak (Ward eta Delgado, 2018: 322). Rocka, herri-kulturaren osagai den aldetik, ezin da ulertu behar bezala ekonomiaren, ideologiaren eta herri-kulturaren beraren arteko interrelazioa aintzat hartu gabe<sup>2</sup>.

Esan bezala, BMGren ondoren ezarritako nazioarteko ordena ekonomiko berriak eta Gerra Hotzak osatzen zuten testuinguruan sortu zen rocka. Eta gertaera hauen eraginpean garatu zen: 1950eko eta 1960ko hamarkadetakoa mirari ekonomikoak, 1973ko krisia, neoliberalismoa eta 1980ko hamarkadako susperraldi ekonomikoa, Gerra Hotzaren amaiera eta globalizazio ekonomikoa eta, XXI. mendea hasita, mundu mailako krisi berri bat. Aldi horretan, aurrerapen teknologikoa funtsezkoa izan da sektore ekonomiko desberdinen garapenerako. Aurrerapen hori agerikoa da hainbat sektoretan, siderurgiaren eta kimikaren sektore ohikoetan ez ezik, puntako sektore bilakatu diren horietan ere, besteak beste, robotikan, ikus-entzunezko sektorean, telekomunikazioetan eta informatikan. Are gehiago, aurrerapen teknologiko horietako asko gertatu izan ez balira, ez zatekeen herri-musikaren produkzio masiborik egongo, eta hedabideetan haren presentzia ez zatekeen hain nabarmena izango, eta ez zatekeen masiboki kontsumituko (Jones, 1992: 1).

---

1. Oraingo herri-musikan rockak adierazten duenari buruz, bat gatoz bere monografiaren lehenengo hiru kapituluetan Adell-ek (1998: 23-49) egiten duen deskribapenarekin.

2. Izan ere, herri-kulturaren ageri diren kontraesaneko bi elementuak biltzen ditu rockak, Rowe-ren (1995) iritziz: batetik, herri-produktuen merkaturatzea eta marketina, eta, bestetik, independentzia- eta erresistentzia-jarrera bat artikulatzeko duen ahalmena.

Ikus daitekeenez, askotariko diziplinak biltzen dituen eremu batean barneratzen ari gara, non rocka bere testuinguruan aztertzeak aukera ematen baitu Hirugarren Industria Iraultzan munduko ekonomiak izandako eboluzioa ere aztertzeko, gertaera ekonomikoen isla baita rocka, berau baldintzatzen duten horiena. Hala, akademikoa baino ez den eduki bat publikoarentzat erakargarriagoa den tematika jakin batekin, hau da, herri-musikarekin lotzea baliabide eraginkor bat da ekonomia aztertzeari ekiteko (Tinari eta Khandke, 2000: 254).

Munduko ekonomiaren azkenaldiko eboluzioaren eta rockaren fenomenoaren garapenaren artean dagoen erlazioa erakustea da testu honen xedea, eta horretarako paraleloan jarri dira gertaera historiko garrantzitsuenak eta rockaren funtsezko mugarriak<sup>3</sup>.

## 2. Egoera Bigarren Mundu Gerraren ondoren

BMGren amaieraren atarian, 1945eko apirilaren 25etik irailaren 26ra, San Frantziskoko Konferentzia garatu zen. Bertan parte hartu zuten berrogeita hamar estatuek aho batez onartu zuten Nazio Batuen Gutuna, 1945eko urriaren 24an indarrean sartu zena. Nazio Batuen Erakundea (NBE) BMGren ondorioei lotuta sortu zen. Hala, potentzia garaileek (AEBk, Erresuma Batuak, Frantziak, Sobietar Batasunak eta Txinak) postu iraunkor bat gorde zuten eurentzat beto-eskubidearekin NBEko organo nagusian, Segurtasun Kontseiluan, alegia.

Hala ere, eragin-ahalmen handiena bi herrialderen eskuetan geratzen zen, haien tamaina eta botere militarra kontuan hartuta superpotentzia bakarrak ziren haien eskuetan: AEB eta Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasuna (SESB). Nazioarteko eszenarioa mugatzea zen bi potentzien asmoa, ahalik eta herrialde gehienak euren kontrolpean izateko, eta horrek berehala eraman zituen elkarri aurka egitera, haien

---

3. Ekonomiaren historia garaikideari buruzko edukia egileak berak aurretik egindako eta argitaratutako lanetatik hartu da (Velarde, Allende eta García, 2007; García 2011 eta 2014). Arlo honi buruz, ikus lan horien iturri direnak, besteak beste: Allen, R.C. (2013): *Historia económica mundial*, Alianza, Madril (2018an UPV-EHUk euskaratua); Alonso, R (2010): *Historia económica del siglo XX: del patrón oro a las subprimes*, Gran Vía, Burgos; Cameron, R. eta Neal, L. (2009): *Historia económica mundial*, Alianza, Madril (2016an eguneratua); Camps, E. (2013): *Historia económica mundial. La formación de la economía internacional*, MacGraw Hill, Madril; Ciocca, P. (2000): *La economía mundial en el siglo XX*, Crítica,artzelona; Comín, F., Hernández, M. eta Llopis, E. (2013): *Munduaren historia ekonomikoa*, UPV-EHU, Leioa; Frieden, J. A. (2012): *Capitalismo Global. El trasfondo económico de la historia del siglo XX*, Crítica,artzelona; Foreman-Peck, J. (1995): *Historia económica mundial. Relaciones económicas internacionales desde 1850*, Ariel,artzelona; Kenwood, A. eta Lougheed, A. (1995): *Historia del desarrollo económico internacional. Desde 1820 hasta nuestros días*, Istmo, Madril; Lozano, P. (2001): *De los imperios a la globalización. Las relaciones internacionales en el siglo XX*, Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea; Madisson, A. (1997): *La economía mundial, 1820-1992*, ELGE, Paris; Marcaida, E. V. (2002): *Estudios de historia económica y social: de la revolución industrial a la globalización neoliberal*, Blioblos, Buenos Aires; Martín, P. (2011): *Pasado y presente: de la Gran Depresión del siglo XX a la Gran Recesión del siglo XXI*, Fundación BBVA, Bilbo; Ocampo, J. (2011): *Manual de historia económica global*, Tea, Madril; Pereira, J. C. (2003): *Historia de las relaciones internacionales contemporáneas*, Ariel,artzelona; Tascón, L. eta López, A. M. (2012): *Historia económica mundial*, Biblioteca Nueva, Madril; Tortella, G. (2005): *Los orígenes del siglo XXI: un ensayo de historia social y económica contemporánea*, Gadir, Madril; Williamson, J. G. (2012): *El desarrollo económico mundial en perspectiva histórica*, Zaragozako Unibertsitatea, Zaragoza.

ikusmolde politikoak eta ekonomikoak antagonikoak zirelako (kapitalismoa *versus* komunismoa). Zeharkako enfrontamendu bat zen hura, *Gerra Hotza* deitu zitzaiona.

NBE sortzearekin batera, potentzia aliatuen ekimenez, Bretton Woods sistema ezagunaren instituzioak eratu ziren. Hain zuzen ere, gerra oraindik amaitu ez zela, 1944ko uztailean Bretton Woodsen (New Hampshire, AEB) egin zen Nazio Batuen Nazioarteko Konferentzia Finantzarioa, non 44 herrialdek parte hartu baitzuten. Herrialde aliatuek, gerra amaituta, munduko ekonomiak nola moldatu behar izango zuten planteatu zuten, argi utzita saihestu egin nahi zela Lehen Mundu Gerraren ondoren garatutako nazioarteko politika ekonomikoaren ereduari jarraitzea. Bretton Woodsen planak eta programak eztabaidatu ziren, nazioarteko organismo finantzarioak ezartzera bideratuak<sup>4</sup>. Garaile irten zen tesia AEBk defendatutakoa izan zen: merkataritzako transakzioak egonkortzea nazioarteko moneta-sistema baten bitartez, kanbio-tasa irmo eta egonkor batekin —dolarren nagusitasunean oinarritua—, eta munduko merkatua liberalizatzea.

Hain zuzen ere, munduko merkataritza liberalizatzeko ideia izango zen, nazioarteko harreman ekonomikoak errazteko helburuz, BMGren ondoren ezarritako nazioarteko ordena ekonomikoaren oinarria. Xede horrekin, Bretton Woodsen finkatu ziren bi organismo ekonomikoren oinarriak —ondoren formalki NBERen sistemaren barruan sortuak—, gerora garrantzi handia izango zutenak: Nazioarteko Diru Funtza (NDF) eta Berreraikuntza eta Garapeneko Nazioarteko Bankua, ondoren Munduko Bankua izenez ezagun. Gainera, Merkataritza eta Aduanako Tarifei buruzko Akordio Nagusia (GATT ingelesezko sigletan) sortzeko oinarriak ezarri ziren; 1948an jarri zen martxan Akordioa. Egitura horren guztiaren xedea hazkunde ekonomikoa bultzatzea zen, nazioarteko merkataritza bere liberalizazioaren bitartez ahalbidetuz, nazioarteko ordainketak erraztuz eta arazo ekonomikoak zituzten herrialdeei laguntzak emanez.

Testuinguru horretan sortu zen rocka 1950eko hamarkadaren lehenengo erdian, AEBn<sup>5</sup>. Eta data bat finkatzerakoan adostasunik egon ez arren, Sierra i Fabra-k (2003: 9) proposatutako biak hartuko ditugu orientagarritzat: 1954ko apirilaren 12a, Bill Haleyk *Rock around the clock* grabatu zuen eguna, eta 1954ko uztailearen 4a, Memphiseko estudio txiki batean Elvis Presleyk *That's all right* grabatu zuen eguna.

Aurretik, *rock-and-roll* terminoa rhythm&blues-eko abeslariak erabili izan zuten sexu-harremanak aipatzeko, musikari jarraitzen zion dantzaren erritmoarekin identifikatu ohi baitzuten<sup>6</sup>. Hala ere, 1950eko hamarkadaren hasieran, rocka, berez,

---

4. Funtsean, bi plan hauek ziren: plan britainiarra, J.M. Keynes-ek defendatua, eta plan iparramerikarra, Harry D. White-k defendatua.

5. Alderdi hau dela-eta, joera nagusiarri jarraitzen diogu, baina ez litzateke ahaztu behar herri-musikaren aurreko mende-erdia, eta ez litzateke artista anglosaxoietan oinarritu behar ere, bereziki AEBko eta Erresuma Batuko haietan (Egan, 2009: 12). Hala ere, bi metropoli rockero horietatik abiatuta, agerikoa da rocka hedatu eta nagusitu egin dela kultura ez-anglofonoetan *pop-rockizazioaren* bitartez (Regev, 2002), rockak oro har eboluzionatu izan duen antzeko faseetan (Regev, 2013: 106).

6. Terminoak nautikan du jatorria, ontzi baten aurreranzko eta atzeranzko mugimenduak (rock) eta alboetakoak (roll) adierazten baititu. AEBko komunitate beltzak XIX. mendearen erdialdera hedatu zuten espresioa, ekitaldi erlijiosoetan gospel musika kantatzean izaten zuten trantzea aipatzeko. Rhythm&blues-eko musikariak aipatutako ñabardura sexual horrekin erabiltzen hasi ziren.

elementu desberdinak elkartzetik sortu zen, musika zuria (country&western eta folk) eta, bereziki, beltza (rhythm&blues, boggie woogie eta swing) nahastetik. 1952an, Cleavelandeko disc-jockey bat, Alan Feed, hasi zen erabiltzen *rock-and-roll* terminoa aurreko urtetik programatzen aritu izan zen fenomeno musikal berriaren abestiak aipatzeko. Irratiko beste esatari ospetsu batzuek ere gauza bera egin zuten, besteak beste, hauek: Waxie Maxiek, Washingtonen; Hunter Hancock, Los Angelesen; eta Porky Chedwickek, Pittsburgren. Horrela hedatu zen haren erabilera 1953an.

Rocka musika-estilo berri bat baino askoz ere gehiago zen, zeren eta egia bada ere sarritan hitz egiten dela rockaz musika-generotzat, baliagarriagoa da gaiari heltzea zentzurik zabalenean kultura musikaltzat hartuta (Keightley, 2006: 156). Testuinguruan kokatzearen, garaiko gazte estatubatuarrak gerra osteko belaunaldi bat ziren, BMG irabazi zuten haien seme-alabak. *American way of life* horretaz gozatzen zuten, baina, aldi berean, egoera ziurgabe batean bizi ziren; are gehiago, Gerra Hotzak eta arma nuklearrek adierazten zuten mehatxuaren pean. Zinemak, *The Wilde One* filmeko Marlon Brando eta James Dean —«kausarik gabeko» gazte menderakaitzen ikono bihurtua— aktoreen bitartez, erakutsi egin zien ez zutela mugatu behar pubertaroaren eta helduaroaren arteko aldiak markatutako bidetik ibiltzera. Gazteok beren prestigio-sinboloak nahi zituzten, hizkuntza propio bat, eta lehen aldiz historian, ez zuten beren gurasoak bezalakoak izan nahi (Assante, 2008: 12). Zinema izan zen, hain zuzen, rockaren arrakasta berekin ekarri zuena soinu-banda gisa erabiltzean. Izugarria izan zen soinua eta irudia nahasteak sorrarazi zuen zirrara. Zineak —XX. mendeko arterik sekulakoena zalantzarik gabe— musika hura bat-batean identifikaziozkoa eta famatua izatea lortu zuen (Méndez, 2004: 36). Rockak ahalbidetu zuen ezarritako arauen aurkako protesta-jarrera hura, zenbait pelikulatan islatua<sup>7</sup>.

1954ko uztaillean Elvis Presleyk bere maketa grabatu zuenean baziren artistak —bai zuriak bai beltzak— rock-and-roll musika konposatu eta interpretatzen zutenak. Artista zurien artean, Bill Haleyz gain, Jerry Lee Lewis, Roy Orbison, Buddy Holly, Carl Perkins edo Gene Vincent. Artista beltzen artean —beren diskoak *race music* gisa sailkatuak izateari uztea kosta egin zitzaientak— Little Richard, Chuck Berry, Bo Diddley edo Fats Domino. Dena den, bere nortasunari, bere ahotsari eta bere karismari esker, Elvisek hezurmamitu zuen ordura arte indarrean zen herri-musikarekiko haustura eta gainditu zuen kulturaren eremua portaera-eskemen eta tradizio moralen urraketaren irudi bilakatzean, 1950eko hamarkadaren erdialdeko gizarte iparramerikarra bezalako hain gizarte kontserbadore batean. Hark bezala beren bizitza eta mundua aldarazi nahi zituzten gazteen begikotasuna bereganatu zuen Elvisek, telebistako kameran aurrean erakutsitako jarrera harroputzagatik<sup>8</sup>, haren jatorri xumeagatik eta gizarteko marjinatuengandik sortutako musikara jo izanagatik. Esan bezala, Elvisek hezurmamitu egin zuen rocka, gazteak askatu zituena tradizioaren etengabeko jazarpenetik. Askatasun-goseak eraman zituen antolatzerara, eta horrela entzun ahal izan zen haien oihartzuna planetako bazter guztietan (Sánchez, 2012: 17).

7. Horrela hasi zen zinemaren eta rockaren arteko erlazio estua, bereziki emankorra 1960ko eta 1970eko hamarkadetan, Del Pozzo eta Esposito (2009) egileek deskribatu bezala.

8. Ordurako AEBko etxeetan telebista elementu komun bat zen eta, paradoxikoki, agintariek egokitzen jo zuten herritarrek nolabait kontrolatzeko tresna gisa.

### 3. Hazkundera eta hedapena: 1960ko hamarkada

Rockak izan zuen zabalkundera ekonomiaren mirari kapitalistekin batera gertatu zen. Mendebaldeko herrialdeek, BMGren ondorio ekonomikoetatik suspertu ondoren, 1950az geroztik, ekonomiaren hazkunde-aldi sendo eta egonkor bat izan zuten 1973ra arte. Barne-produktu gordinaren (BPG) batez besteko urteko hazkunde-tasak % 5 ingurukoak ziren, inflazioa % 4koa eta langabezia-tasa ez zen % 3tik gora igo. Hala, berebiziko garrantzia izan zuen keynesianismoa praktikara eramateak, nagusiki Europan.

Hain zuzen ere, ekonomien irekitasun-maila handiagoaz gainera —aurreko atalean aipatutako organismoen helburuek berekin ekarria— keynesianismoa izan zen hazkundearen arrazoi nagusietako bat<sup>9</sup>. Mendebaldeko Europako herrialde ugartan gobernuak ezkerrekoak eta zentro-ezkerrekoak izateak (laboristak eta sozialdemokratak) lagundu egin zuen J. M. Keynes ekonomialari britainiarraren ideiak aplikatzen. Horrela, areagotu egin zen interbentzionismo estatala ekonomian, enpresa publikoaren sustapenaren bitartez, baita enpresen nazionalizazioen bidez ere; gastu publikoko politika berriak sustatu ziren, gizarte-kapital finkora, azpiegiturretara eta produkzio zuzenetara bideratuak; are gehiago, defizit publikoa beren gain hartu zuten, enplegu osoa eta gizartearen egonkortasuna lortzeko. Hori guztia ekonomia misto bat izateko joera zuen merkatu-ekonomia batean, nahiko planifikatutako hazkunde ekonomiko baten bitartez.

Era berean, ongizate-estadia deitutakoa egituratu zen, Estatuak bere gain har zezan kontingentzien estaldura orokorra —herriarren gastu sanitarioak, hezkuntzakoak edo erretirokoak, besteak beste—. Gizarte-segurantzak moderno bat ezartzea ekarri zuen horrek berekin, belaunaldien arteko banaketa eta akordio-sistema baten bitartez neurtua. Gainera, adostasun- eta akordio-aldi baten sorrera izan zen lan-harremanen eremuan: Mendebaldeko langileen sindikatuek onartutako sistema, bertan parte izango zirena. Hala, sistemari aurre egin ordez pragmatikoki egokitu ziren sistemara, haien afiliatuentzat ahalik eta abantaila gehienak ateratzen saiatzeko negoziazio kolektiboez baliatuz. Aipatutako langabezia-tasek lagundu zuten horretan, ez baitzuten % 3 gainditzen (enplegu osoaren edo langabezia teknikoaren egoera).

Hala eta guztiz ere, beste ikuspegi batetik, errenta handitzearen ondorioz, handitu egin zen kontsumoa (hasiera batean ekonomiaren hazkunderako positiboa) eta Mendebaldeko herrialdeetan orokortu egin zen jadanik AEBn existitzen zen masen kontsumo- eta merkatu-eredua ondasun iraunkor estandarizatueterako (automobil partikularrak, linea zuriko eta linea marroiko etxetresna elektrikoak eta abar). Hala, marketinaren eta propaganda grafikoaren nahiz irrati/telebistakoaren garapenak erraztu zuen bide hura. *American way of life* nazioartekotu egin zen, eta haren eskutik herrialde kapitalisten artean rocka hedatu zen ere.

---

9. Testuan aipatzen ditugun horiez gain, garapen ekonomikoaren beste eragile batzuk hauek izan ziren: lehengaien eta erregaien prezio baxua, Hirugarren Industria Iraultzako aurrerapen teknologikoak, inbertsio eutsiaren tasa altu bat, eta hobekuntza enpresen kudeaketa-sistemetan eta baliabideen esleipenean.

Izan ere, 1956an izan zen rockaren eztanda komertziala, Elvis Presley masen fenomeno bat bilakatu zenean, AEBko mugak gainditu eta Europara iritsi zena. Erresuma Batua izan zen sarbideko atea, non rockak berehalako sarraldia izan baitzuen. Hala, tokiko musikariak famatu bilakatu ziren, besteak beste, Lonnie Donegan, Tommy Steele edo Cliff Richard (Drifterekin lehenik eta Shadowsekin gero). Europako beste herrialde batzuetan ere bizkor barneratu zen rocka, zegozkien musika-estilo eta gizarte-arauetara egokituta, tokiko musika-industriek saialdiak egin baitzituzten beren bertsioak sortzeko, Frantzia, Italia, Grezia eta Alemanian, adibidez (Kouvarou, 2015).

Hasierako urte haietan, aurreko atalean aipatutako artista guztiek, bai zuriak bai beltzek, izugarriko arrakasta izan zuten gazteen artean, gazte zurien eta beltzen artean, alegia. Arraza-segregazioaren aurkako borroka AEBn gorpuztu zenean, zurien eta beltzen arteko oztopoak hautsi zituen rockak, musika beltza *ghettotik* ateratzea lortu zuen eta arraza guztietako gazteek gogokoen zuten musika bihurtu zen (Méndez, 2004: 27). Mundu osoko gazteen artean zabaltzen hasitako erlijio berri baten moduan sortutako fenomeno baten isla zen hura, eta agintea eta ezarritako ordena desagitea baino ez zuen dogmatzat<sup>10</sup>. 1950eko hamarkadaren aurreko musika-generoekin gertatu ez bezala, zeinetako bakoitzak entzule-eredu jakin bat baitzuen hainbat eta hainbat patroiaren arabera —arrazari lotutakoak barne—, rockarekin progresiboki ezabatu ziren oztopo haiek, eta horrela lortu zuen unibertsala izatea erreferente kultural gisa (De la Fuente, 2007: 119).

Bereziki Ipar Amerikan eta mendebaldeko Europan, gazteak masiboki bertaratu ohi ziren beren idoloen kontzertuetara baita dendetara ere haien diskoak erostera. Nolabait ere, rockak berak, adierazpide kultural industrializatu bat zen aldetik, berebiziko garrantzia izan zuen gazteria populazio-kategoria gisa hartzera eramanean zuen prozesuan (Serbia, 2018: 24). Hala hasi ziren gazteak existitzen ikuspuntu ekonomiko batetik begirata, eta aukera bat zabaldu zen horrela negozioa egin nahi zuten haientzat. Industria diskografikoak bere produktu nagusi bihurtu zuen rocka, bai artistak bai jarraitzaileak kontrolpean zituztela. Horrekin batera, *screen stars* izarren fenomenoak sortu zen: konpainia eta irati kontserbadoreenak sortuak, rockaren izaera inkonformistari aurre egiteko asmoz, baina haren formaz eta irudiaz baliatuz eta *American way of life* indartzeko helburuz. Elvis Presleyren kopiak ziren, pelikula gatzgabeetako protagonistak, eta soinu-bandak haiek interpretatzen zituzten rockaren eritimoak baliatzen ziren abestiek. Ordea, abesti horien letrek albo batera uzten zituzten AEBko barne-arazoak, besteak beste, arrazakeria edo macarthismoaren sorginen ehiza<sup>11</sup>, baita nazioarteko arazoak ere, Gerra Hotzak eragindakoak besteak beste.

1960ko hamarkadaren hasieran rockaren espiritu subertsiboak galdu egin zuen indarra, *screen stars* izarren eragin zuzena jaso zuen bigarren belaunaldi bat agertu

---

10. Gerra Hotzean elkarren aurka borrokan jardundako superpotentzietako agintariak bat zetozen rocka arrisku bat bezala ikustean. Izan ere, AEBn honela ikusten zuten: itun komunistak gaizto bat gazteria amerikar osasuntsua, kutsatzeko eta SESBen honela: yankien baliabide maltzur bat gazteria komunistar osasuntsua kutsatzeko (Sierra i Fabra, 2003: 29).

11. Macarthismoak sorrarazitako jazarpenak musikariaren artean eragin nabarmenagoa izan zuen folk abeslariengan, ezker politikotik gertuago zeudelako, Kutschke-k azaldu bezala (2018).



zenean. Ia ez zen nahigaberik islatu Kubako misilen krisiaren aurrean (krisi hark eraginda beste mundu-gerra bat eztanda egiteko zorian egon zela kontuan hartuta) edo Vietnamera tropak bidaltzen hasi zirenean. Gainera, musikari ospetsuetako batzuk desagertu egin ziren, batzuk aldi baterako, esaterako Chuck Berry edo Jerry Lee Lewis, puritarismotik eta kontserbadurismotik jasotako erasoetatik ihesi, eta beste batzuk behin betiko, haien artean Buddy Holly edo Ritchie Valens, istripuz hil zirenak.

Rocka AEBn ahultzen ari zen bitartean, rhythm&blues-eko artistek soul eta funk musikak gehitu zituzten beren abestietan, eta emaitza fresko eta alai bat lortu zuten. Zigilu diskografiko beretik zetozen guztiak, Motown historikotik alegia<sup>12</sup>, eta haien artean zeuden The Supremes, The Marvelletes, The Temptations, Marvin Gaye, Stevie Wonder edo James Brown. Batzuek soul puruago baterantz eboluzionatu zuten (Otis Redding edo Aretha Franklin). Bestalde, folk abeslariak izaera inkonformistari eutsi zioten (Peet Seeger, Woody Guthrie, Joan Baez edo Bob Dylan). Hala ere, Dylanek bere musika elektrifikatzea erabaki zuen eta bultzada berri bat eman zion rockari. Beste batzuek bide horri jarraitu zioten, adibidez, Simon&Garfunkel-ek eta Neil Youngen Buffalo Springfield-ek.

Hala, Ingalaterran berreskuratu zuen rockak bere hasierako filosofia, bai jarrerari bai soinuari dagokienez. Beatles eta Rolling Stones taldeak ez ezik, beste talde batzuk ere sortu ziren (The Animals, The Kinks, The Hollies, The Zombies, The Small Faces edo The Who). Banda britainiarrek berriro heldu zioten rockari gazteen bizipenak eta arazoak adierazteko baliabidetzat hartuta. Beatlesekin sekulako arrakasta izan zuten hasieratik, eta benetako masen fenomeno bihurtu ziren planeta osoan. Beatlesen eskutik hedatu zen pop musika belaunaldi berrien artean, alboratu egin baitzuten nolabait rock klasikoena, eta horrela iritsi zen poparen merkatua nerabeen ia esparru eksklusibo bat izatera (Frith, 2006: 143). Rhythm&blues musikatik gertuago, Rolling Stones taldea, marjinalitatean sorburua zuen beatlemaniarri zuzendutako erantzun gordin bat izan zen, eta horrek eragin zuen mutil maltzuraren irudi hori euren egitea, gazteen artean oso erakargarria.

1965az geroztik AEBn ezagutu zuen rockak bere susperraldia, banden belaunaldi handi bat sortu eta irmotzen joan zenean. Psikodelia egin zen eszenarioen jaun eta jabe eta rock garrantzak San Frantziskon sortutako hippy mugimenduari ipini zion soinua, urte batzuek utopia praktikatu zuen belaunaldi alternatibo bat berekin ekarri zuena (Assante, 2008: 20). Garai hartakoak ziren Jimmy Hendrix, Janis Joplin-en The Big Brothers, The Doors, The Jefferson Airplane, The Grateful Dead edo The Byrds. *Sex, druggs and rock'n'roll*-aren goren unea zen hura. Berriro egin zuen agerraldia rockaren izaera oldarkorrek, eta Frank Zappa zen haren tonurik subertsiboenaren ordezkaria. Psikodeliak, berriz, bizitza optimismoz ospatzeko joera erakutsi zuen zenbaitetan; horren erakusgarri dira *California sound* edo *surf music* generoak, The Beach Boys izan zituztenak ordezkari nagusi. Beste batzuk, aldiz, aukera abangoardista sofistikuago bat izan ziren, entzule elitista gutxi batzuentzat, Lou Reeden Velvet Underground, adibidez.

---

12. Motown Records 1959an sortu zen Detroit hirian. Diskoetxe horrek 1990etik aurrera estilo orotako artisten diskoak argitaratzen baditu ere, hasieran abeslari beltzek egindako diskoak ekoizten zituen soilik.



1964 eta 1968 urteen bitartean aldaketa estilistiko bizkorak gertatu ziren. Keitghtley-ren (2006: 163-166) arabera, 1950eko hamarkadan Ipar Amerikako musikari zurien eta beltzen arteko elkarrizketa sortzaileak rock-and-rollaren sorrera bultzatu zuen bezala, AEBtik eta Erresuma Batutik sortutako soinuek elkarri lotu eta sendotu egin zuten rocka (*'n'roll* atzizkia galduta). Gainera, Mendebaldeko herrialdeetan, 25 urtetik beherako populazio-segmentuak guztizko populazioaren portzentaje handi bat osatzen zuen ordurako. Hala, gazteriak lortu egin zuen ikusgarritasuna gizartean, baita aurrekaririk ez zuen botere ekonomiko bat ere. Testuinguru horretan, musikaren industriak lehen bokazio anti-masa zuen musika oso produktu arrakastatsu bihurtu zuen.

Orokorrean, *peace and love* mugimenduaren goren unea izan zen hamarkada hura. BMGren ondoren jaiotako lehenengo belaunaldiak hogeitau urte betetzen zituen eta bere buruari galdetzen zion nola izan zen posible izugarrikeria hura, Gerra Hotzaren ondorioz gatazka ugari elkarren segidan gertatzen ari ziren garai batean eta deskolonizazio-prozesuaren testuinguruan. Pentsamendu kritikoa orokortu zen, zeinaren bitartez gazteak, berriz ere, ondorio berera iritsi ziren: ez zuten beren gurasoek izan zutena bezalako etorkizun bat nahi. Horrek guztiak eman zuen bidea 1960koa hamarkada mitiko bat izatera iristeko: asalduraren garaia, protesten eta ametsen hamarkada (Méndez, 2006: 104).

Ez da harrizkoa, beraz, testuinguru horrek jaialdi handiak antolatzea berekin ekarri izana, gerren kontrako mezu argi eta zuzena zutenak. 1967ko ekainean Monterreyko jaialdia egin zen Kalifornian; bakearen errebindikazio masibo bat izan zen, Gerra Hotzaren ondorioz munduan gertatzen ari ziren gatazka belikoen aurrean, baita Vietnameko gerraren aurkako mugimenduen sorburua ere<sup>13</sup>. Hortik aurrera, jaialdiak masiboak izaten hasi ziren, bai publikoari bai musikari parte-hartzaileei zegokienez. 1968ko abuztuan jaialdi bat egin zen Erresuma Batuan ere, Wight uhartean (bi edizio gehiago izango zituena) eta 1969ko abuztuan egin zen New Yorkeko Woodstock famatua<sup>14</sup>.

Rock-protesta, hippysmoz eta psikodeliaz blaitua, bere goren unera iritsi zen eta garai hartako gertakari nabarmenenen isla izan zen (batzuk goraiatuak eta beste batzuk protesten bidez gaitzetsiak): Pragako Udaberria, Frantziako Maiatza, Martin Luther Kingen eta Bob Kennedyren hilketak, Vietnameko gero eta gerra gordinagoa, liberazio nazionalaren mugimenduak garapen-bidean zeuden herrialdeetan eta abar. Rockaren arrakasta mundu osoan zabaldu zen, Mendebaldeko herrialdeetan batez ere. Diktaduraren menpe zeuden herrialdeetan, Espainian, Grezian edo Portugalen

---

13. Jaialdia The Mamas & The Papas taldeko kide John Phillipsek planeatu zuen San Frantziskon garatutako mugimendu kontrakulturalaren barruan, 1967ko «Maitasunaren Uda» gisa ezagun egin zen hartan. Phillipsen taldeaz gain, honakoek parte hartu zuten, besteak beste: The Byrds, Jefferson Airplane, Jimmi Hendrix, The Who, Janis Joplin, Grateful Dead, The Rolling Stones, The Animals, Buffalo Springfield, The Steve Miller Band eta Moby Grape. Beste estiloetako abeslariak ere parte hartu zuten: soul (Otis Redding), jazz (Hugh Masekela), Indiako sitar musika-tresna joleak (Ravi Shankar).

14. Wighten parte hartu zutenak, besteak beste: Joan Baez, Chicago, Leonard Cohen, Miles Davis, The Doors, Emerson-Lake and Palmer, Free, Jimmi Hendrix, Jethro Tull, John Lennon, Kris Kristofferson, Supertramp, Joni Mitchell eta The Who. Woodstocken: Joan Baez, The Band, Joe Cocker, The Creedence Clearwater Revival, Crosby-Stills-Nash & Young, Grateful Dead, Jimmi Hendrix, Janis Joplin, Jefferson Airplane, Santana, The Who, eta abar.

esaterako, zentsura zorrotz bati aurre egin behar izan zion, baina, hala eta guztiz ere, ugaritu egin ziren tokiko taldeak. Herrialde komunistetan, rocka mugimendu kontrakultural gisa indartu zen, eta aginteak jarritako oztopoei aurre egin behar izan zien, arrisku kapitalistatzat hartzen baitzuten rocka. Afrikan, kolonialismoaren eta gerren azkeneko astinaldiek (independentziaren aldeko gerrak edo Gerra Hotzaren eta metropoli zaharren interesen ondoriozkoak) ez zuten ia aukerarik ematen musikaren aisiatzeko. Latinoamerikan, demokrazien ustelkeriak, diktadurek (kasu askotan AEBk bultzatuak) eta barruko gerrek eragotzi egin zuten rocka aise zabaltzea. Herrialde haietan kontsumo-ondasun iragankorren produkzio-sistemak ezartzeko saialdiak egin zituzten, emaitza onekin eta ekonomiaren nahiko hazkunde egonkorra berekin ekarriz (Brasil, Mexiko, Uruguai, Argentina edo Txile), eta egoera horrek ireki zuen bidea banda ugari sortzeko, nolabaiteko arrakasta izatea lortu zutenak.

#### 4. Krisia: 1970eko hamarkada

1960ko hamarkadaren bukaeratik 1973ra arte pilatzen joan ziren krisi latzak eztanda egitea eragin zuten arrazoiak eta kausak. Haien artean aipatzen dira Europako gazte unibertsitateen mobilizazioak, maiatzaren 68koak, eragina izan zutenak mugimendu sindikalaren indarraldian eta adostasun eta bake sozialaren amaieran. Baita ongizate-estatuak adierazten zituen kargak ere, kontuan hartuta sistemak ahalmena eta betebeharra zuela haiek bere gain hartzeko, are gehiago produktibitatea eta irabaziak etengabe hazten ari ziren garai batean. Horrek kontsumo-ahalmen handiagoa ekarri zion populazioari, eta eskaria handitzea eragin zuen, azkenean prezioen igoera presionatzeraino. Aldi berean, igo egin zen 1950eko eta 1960ko hamarkadetan merke eskuratu zitezkeen lehengaien (erregaia eta energia) prezioa ere. Lehengai horiek garapen-bidean ziren herrialdeetatik etortzen ziren, zenbait kasutan industrializazio-prozesuei ekin zieten herrialdeetatik eta, beraz, sektore jakin batzuetan Ipar Amerikarentzat eta Europarentzat lehia izaten hasiak zirenetatik<sup>15</sup>.

Sistemak 1971n egin zuen koloka, AEBko presidente zen Nixonek dollarraren bihurtasuna etetea erabaki zuenean. Hala, sistematik atera zuen moneta, nazioarteko ordainketa-sistema osoaren oinarri izandakoa, eta flotatzen utzi zuen merkatuetan<sup>16</sup>. Ondorioz, % 15 devaluatu zen dolarra eta, munduko enpresa handi gehienek erreserbak eta aktiboak dolarretan zituenez gero, egoera horrek erasan egin zituen guztiak. 1973ko urrian iritsi zen akabera Bretton Woods sistema osoarentzat, Yom Kippurreko gerraren ondorioz Arabiar Lurralde Petrolio

---

15. Paradoxikoki, herrialde horien garapen industrialia Mendebaldetik zetozen atzerriko inbertsioen bidez lortu zen, herrialde horietako ehungintzaren, siderometalurgiaren, ontzigtzaren eta meatzaritzaren sektoreetako eskulan ugaria eta merkea, abantaila fiskalak, lanari eta ingurumenari buruzko erregulazio eskasa aprobetxatuz.

16. Vietnameko gerrak defizita sorraziz zuten AEBko altxortegian, eta Ipar Amerikako armagintzako industria ahalmentuari ordaintzeko dolar kopurua gehituz finantzatu zen. Jaulkitako dollarrak moneta horretan aktiboak zituzten herrialdeetara zuzentzen ziren, eta haiek protesta egin zuten AEBn sortutako presio inflazionista jasotzen ari zirelako.

Esportatzaileen Erakundeko herrialdeek Mendebaldearen aurka ekitea erabaki zutenean petrolioaren produkzioa % 25 murriztuz eta prezioak % 400 igoz<sup>17</sup>.

Krisi ekonomikoak eztanda egin zuen eta bere ondorioak berehala antzeman ziren: enpresa-irabazien desagertzea eta inbertsio-tasen beherakada, enpresen itxiera, % 20tik gorako langabezia-tasa herrialde ugarritan (gazteen % 40ko langabeziarekin), etenik gabeko inflazioa, prezioen gorakada kontrolgabea (horrek estanflazioa ere berekin ekarri) eta abar. Pasiboa izan zen agintarien jarrera, krisiak denbora-tarte bat iraungo zuela pentsatzen baitzen, baina luzatu egin zenez denboran, askoz ere zailagoa izan zen doikuntza-neurriak hartzea, eta horrek izugarritzko ondorio txarrak ekarri zituen herritarrengan.

Krisiak eztanda egin baino lehen, hamarkadaren hasiera sormen handikoa izan zen rockaren munduan. Izan ere, goren unea adierazi zuen bere historian: berdinek izango ez zuen garai bat, orduan azkenik ez zuela ematen zuen eskailera baten amaiera; ideiak, sentsazioak, soinuak, dena zen posible eta halaxe izan zen (Sierra i Fabra, 2003: 194). Kontuan hartuta, gainera, berri txarrekin hasitako hamarkada izan zela: Beatles taldea desegin zen eta musikari garrantzitsuak hil ziren, besteak beste, Jimi Hendrix eta Janis Joplin 1970ean, eta Jim Morrison urtebete geroago<sup>18</sup>. Estiloei begiratuta, garai ona izan zen hura rock progresiboarentzat, besteren artean Jethro Tull, Pink Floyd, Genesis, King Crimson, Supertramp edo Yes taldeak sortu zirenekoa. Aldi berean, Led Zeppelin, Deep Purple, Judas Priest edo Black Sabbath bezalako bandek gogortu egin zuten soinua, eta hala sortu zen hard-rocka, heavy musikaren bezpera moduan (baita punk musikarena ere, MC5 bezalako taldeekin gertatu bezala). Beste batzuek pop-rock intimista bati ekin zioten, haien artean Carole King, Joni Mitchell edo James Taylor bakarlariek. AEBn indar handia hartu zuten country-rock generoak The Eagles eta Credence Clearwater Revival taldeekin eta hegoaldeko rockak Lynyrd Skynyrd eta Allman Brothers Band taldeekin. Jamaikatik reggae musika iritsi zen, Jimmy Cliff, Peter Tosh edo Bob Marley handiaren eta Wailers taldearen eskutik. Eta glam-rock generoak ere fama ezagutu zuen David Bowie, The New York Dolls edo Roxy Music-ekin<sup>19</sup>.

1973an industria diskografikoa, lehen aldiz, zinema eta telebista baino errentagarriagoa izatera iritsi zen. Eta rocka bere une gorenean zenean eztanda egin zuen krisiak, rocka modu desberdinetan erasan zuenak. Herritarrek diru gutxiago zuten aisiarako eta, beraz, disko gutxiago erosten ziren eta kontzertuetara joaten zen publikoa ere urriagoa zen. Igo egin ziren prezioak, garestitu egin baitzen biniloak eta

---

17. Arabia eta Israel arteko hirugarren enfrontamendua zen, Siriak eta Egiptok batera hasitako ekintzak abiarazia Sei Eguneko Gerratik Israelen eskuetan zeuden lurraldeak berreskuratzeko. Israelen nagusitasun militarren aurrean, Arabiako herrialdeek NBERa jotzea erabaki zuten, non Israelen aliatuek (AEB, Erresuma Batua eta Frantzia) blokeatu egin baitzuten herrialde juduak ezarritako zigor bat (SESBek berak ere ez zuen babestu); horren aurrean, arabiarrek Mendebaldeko herrialdeak eremu ekonomikoan zigortzea erabaki zuten.

18. Hala ere, musikari hauen heriotza goiztiarrean oinarrituta, martiri gazteez osotutako rock-izendegiari hasiera eman zitzaion (De la Fuente, 2014: 152).

19. Kontua da glam-rocka eta, bereziki, bere bertsio dibertigarri eta komertzialena, glitter-rock izenez ezagun, 1970eko hamarkadako hasierako sormenaren erakusgarri gisa aipatzen direla. Cagle-k (1995) honela deskribatzen du glitter-rocka: arte desberdinak elkartzetik Andy Warholek eta David Bowiek garatutako konbinazioa.

kaseteak egiteko lehengaiaren prezioa. Gainera, hamarkadaren hasierako sormen handiko aldiaren ondoren nabarmen urritu ziren ideia berriak eta, hortaz, konpainia diskografikoek artista handiengan soilik jarri zuten konfiantza, banda berrien alde apustu egin gabe. Gazteek utzi egin zioten beren burua identifikatzeari rockeroaren irudiarekin, jende arruntetik eta gehiengoak ziren gazte arrunten eguneroko bizitza latzetik urrundutako rock izarra. Gazteek etsita ikusi behar izaten zituzten astero telebistan prezioen etengabeko igoerari eta fabriken itxierari buruzko berriak; eta ez zuten rock zahar, kexati eta baldar hura entzuteko aukerarik ere, itxaropen falta saihestu ahal izateko (Méndez, 2004: 143).

Rockarentzako berri on bakarrak AEBtik kanpo iritsi ziren. Batetik, reggae jamaikarra, bere erritmo epelari eduki sozial eta iraultzaile argi bat biltzen zuen mezua gehitu ziona. Bestetik, proposamen berri urriak Erresuma Batutik etorritakoak ziren, Queen edo Mike Olfield bezalako irudi interesgarriekin. Erresuma Batua Europar Erkidegora elkartu izanak kontinentean ideia berriak sortzeko balio izan zuen, baita banda ugari nazioartean arrakasta lortzeko zubi gisa erabiltzeko ere. Hala gertatu zen Shacking Blue eta Focus holandarrekin, Tangerine Dream eta Can alemanekin, eta Blue Suede eta Abba suediarrekin. Azken horiek *europop* estiloa sortu eta udako oporretako soinu enblematiko bilakatu ziren (Frith, 2006: 138).

Erresuma Batuan genero berri bat sortu zen: punka, gutxi iraun arren rockaren jatorrizko espiritua berreskuratzeko funtsezkoa. 1976ko amaieran, gazteria britainiarrak, kontentagaitz eta erreferentziarik gabe, haientzat etorkizunik ez zegoela ondorioztatu zuen. *No future* izan zen araurik ez zuen mugimendu inkonformista haren lema, eta jatorrizko rockaren soiltasunera (gitarra, baxua, bateria) bueltatu zen, baina oso soinu latzarekin eta oso letra zuzen eta iraingarriekin. Berehala sorrarazi zuen zarata izugarri hura baino askoz ere gehiago eskertzekoa da punkak kontzientziak piztu izana (Assante, 2008: 40). Sex Pistols izan zen banda karismatikoena, nahiz eta izan ziren beste batzuk ere, haien artean The Damn, Generation X edo The Misfits. AEBn banda batzuek jarrera bera hartu zuten, The Ramones taldeak adibidez, eta artista batzuek hurbilketa bat egin zuten, haien artean Lou Reedek edo Iggy Popen.

Punka, berez, hamarkada bukatu baino lehen itzali zen konpainia diskografiko handiek hartutako jarreragatik. Gazteek punka eskatzen zuten, banda ugari fitxatu eta sortu zituzten, punkak berezkoa zuen mezua bigunduta (AEBn *screen stars* izarrekin gertatu zen bezala), eta horrela desagertu zen punkaren existitzeko arrazoia. Biziraun zuten bandek beste joera batzuetarantz eboluzionatu zuten (haien jarrera aldatu gabe) eta horren erakusgarri dira The Clash, The Jam, The Specials edo Madness (azken bi horiek ska garatu zuten reggaetik abiatuta). Punkak, batzuentzat, rock gotikorantz eboluzionatu zuen (Calero, 2013). Punka gaudituta, Erresuma Batuan kalitatea helburu nagusiztat zuten taldeak sortu ziren, haien artean The Pretenders, The Police edo Dire Straits.

AEBn beste ihesbide bat garatu zen krisi latzaren eta haren ondorioen aurrean. Jendea hiri handietako diskoteketara joaten zen, irteteko, dibertitzeko, eguneroko nahigabeez, langabeziak, gaizki ordaindutako lanak edo etorkizun ziurgabeak ahazteko nahi biziarekin, eta horrek ekarri zuen berekin *disco sound* delakoa

(Allende, 2007: 114). Genero berriaren ordezkari izan ziren Donna Summer, Earth-Wind & Fire, Bonney M, Kool & the Gang, Village People edo The Jackson Five, besteren artean. *Dance* kultura gizartearen ihesbide bat baino zerbait gehiago izan zela esan daiteke, zeren eta era askotan egiten baitie aurka ideia eta esperientzia hegemonikoei oso maila sakonetan (Gilbert eta Pearson, 2003: 297).

Jaialdiek garrantzitsuak izaten jarraitzen zuten baina, krisiak eta nazioarteko testuinguruak zirela-eta, helburu espezifikoak zituzten. Adibide gisa aipa ditzakegu, batetik, *No Nukes* festibala, 1979ko irailean New Yorken egin zena hondamendi nuklearrak salatzeko eta ingurumenarekiko errespetua exijitzeko eta, bestetik, Kampucheako festibala, Paul McCartneyk antolatuta 1979ko abenduan Londresen egin zena, Pol Pot diktadorearen sarraskien aurka protestatzeko eta Thailandiako errefuxiatu kanbodiarren laguntzeko<sup>20</sup>.

## 5. Neoliberalismoa eta susperraldia: 1980ko hamarkada

1978an, krisiaren bigarren astinaldiaren aurrean, petrolioaren prezioa berriro igo zenean, herrialde batzuek erreazio-neurri zorrotzak hartzea erabaki zuten<sup>21</sup>. Ekintzari heldu zioten lehenak Erresuma Batuko Margareth Thatcherren gobernu eta AEBko Ronald Reaganena izan ziren, zeinek ortodoxia finantzarioaren formula aukeratu zuten, gastu publikoaren erabateko murrizketan oinarritua. Keynesianismoa baztertu eta neoliberalismoa aplikatu zen: gastu publikoa mugatzeko helburuz gutxienera murriztu zen Estatuaren presentzia jarduera ekonomikoan, populazioarentzat berebiziko garrantzia duten sektoreetan barne (osasuna eta hezkuntza) eta sektore pribatuaren jarduera sustatzeari ekin zitzaion; horretarako, erraztu egin zen sektore pribatuaren partaidetza enpresa publikoak privatizatzean eta lan-harremanak malgutzean (soldata baxuak eta kaleratze merkea). Interes-tasak eta zergak igo ziren, eta zalantzan jarri zen ongizate-estatua. Egoera horretan, krisiaren ondorio larriak ez ezik, hura gainditzeko ezarri ziren neurri zorrotzak ere jasan behar izan zituzten herritarrek.

Mendebaldeko herrialde guztiek jarraitu zioten, neurri batean edo bestean, Erresuma Batuak eta AEBk hasitako bideari. Baita gobernuak ezkerrekoak zituzten herrialdeek eta laguntza finantzario bila NDFra jo zuten guztiek ere, herrialde industrializatuek edo garapen-bidean zeudenek. Diru-laguntza jasotzeko, NDFk herrialde guztientzako gidalerro gisa hartutako neurri neoliberalak betetzeko konpromisoa hartu behar zuten herrialdeek. Era horretan, 1980ko hamarkadaren bigarren erdian, ekonomia hazi egin zen berriro, eta horren erakusgarri izan zen magnitude nagusiak berreskuratu izana: inflazioaren beherakada, defizitaren murrizketa, inbertsio-tasaren berreskuratzea, produkzio industrialaren eta enpresa-irabazien hazkundea, kanpo-ekonomiaren gorakada. Dena den, enplegua

---

20. New Yorken parte hartu zutenak, besteak beste: Jackson Browne, Bruce Springsteen, The Doobie Brothers, Tom Petty & The Heartbreakers, James Taylor eta Crosby, Stills & Nash. Londresen: Paul McCartney & the Wings, Queen, The Pretenders, The Who, The Specials eta The Clash.

21. 1978ko irailean Persiako Xaharen erregimena erori zen eta Khomeini aiatolak errepublika islamiko bat ezarri zuen Iranen, petrolio-ekoizle nagusietako bat zen herrialdean. Erregimen berriak Mendebaldeko herrialdeei salmentak nabarmen murriztea erabaki zuen eta, ondorioz, 1979an bikoiztu egin zen petrolioaren prezioa.

berreskuratu bazen ere, ez ziren berrogeita hamarreko eta hirurogeiko urteetako gutxieneko langabezia-tasak lortu. Azkenean, neoliberalismoak erakutsi egin zuen posible dela ekonomikoki haztea langabezia-tasa nabarmenak izanda.

Neoliberalismoa ezartzen zen bitartean, hamarkadaren hasieran gertaera tragiko batzuk izan ziren rockaren munduan: John Lennonen eta Bob Marleyren heriotza eta Led Zeppelin taldearen desagitea. Hala ere, gizarteak krisiaz eta krisia gainditzeko ezarritako neurriez ahazteko zuen gogo biziaren isla izateagatik ez ezik, krisia gainditzen hasitakoan zabaltzen ziren aukerengatik ere, 1980ko hamarkada era askotako musika-estiloak eta generoak biltzeagatik bereizi zen, batzuk rockaren fenomenotik zeharo urrunduta. Gainera, musika-estilo desberdinak sustatzeko, industria diskografikoa telebistaz baliatzen hasi zen (MTV Music Television izan zen katerik ikusgarriena) eta, beraz, irudiari garrantzi handiagoa ematea ekarri zuen horrek berekin. Gauzak horrela, oso bideo zainduei esker lortu zuten hainbat artista kaskarrek ospea lortzea, talentu handiagoko abeslariak beren musika sustatzeko eginahalak egin behar izan zituzten bitartean (Bergamini, 2006: 52). Are gehiago, bideo musikala banalizazio-terminoetan erabili zen eta kontrol-arma politiko bilakatu zen azkenean (De la Fuente, 2007: 129).

Aurretik arrakasta irmotuta zuela, Bruce Springsteen, E-Street Band taldeko buru zela, langile-klase iparramerikarraren ikono bihurtu zen. Eta *Bossek* bezalaxe, beste rockero bakarlari batzuek ere lortu zuten ospea, talde gitarrero bikainetako buru zirela. Halako konpromiso sozial bat nabari zitzaien leterekin, Tom Petty zegoen Heartbreakers taldearekin, baita John Cougar/Mellencamp ere; ukitu komertzialago bat zutenen artean, berriz, nabarmentzekoak dira Huey Lewis & The News edo Bryan Adams. Haiekin batera, hirurogeiko urteetan ospetsu egin ziren hainbat bakarlarik eta taldeetako kidek irmotu egin zuten beren ibilbidea bakarka, AOR (*Adult Oriented Rock*) musikaren barruan sailkatuta: Stevie Nicks (Fleetwood Mac), Don Henley (The Eagles), Robert Plant (Led Zeppelin), Phil Collins (Genesis), Steve Winwood (Traffic), Sting (The Police), Tina Turner eta abar.

Hard-rockaren garapen gisa askorentzat rockaren salbabidea izan zena iritsi zen: heavya, harrezkero erreferentzia izango dena, neurri batean, rockaren soinuari dagokionez. Bi korronte nabarmendu ziren hasieratik. Batetik, rock-heavya, 1970eko hamarkadan jada arrakastatsu ziren hard-rock taldeek garatua (ACDC, Scorpions, Kiss edo Aerosmith), eta haiei elkartu zitzaizkien talde berriak (Whitesnake, Def Leppard, The Cult, Bon Jovi edo Guns'n'Roses). Bestetik, heavy-metala, besteren artean, Van Halen, Iron Maiden, Motorhead eta Manowar taldeek garatua. Rock gogorak xurgatu egin zuen neurri batean punkaren izaera konformagaitza eta horrela bilakatu zen, artista nahiz publiko izan, gazteen baliabide harmoniaren legeak urratzeko. Rock gogorrekin burla egiten zieten portaera burgesei, sarri asko portaera bortitzak ere berekin ekarriz (Bergamini, 2006: 44)<sup>22</sup>.

---

22. Garai honetan, punkaren eragina berandutxo heldu zeneko lurralde batzuetan protestak indar handia mantendu zuen neoliberalismoaren aurka. Horren adibide argienetakoa Euskal Herrian dugu, non 1970eko hamarkadaren bukaerako egoera politiko-ekonomikoak euskal herri-musikan aldaketa handia sortu baitzuen. Kantautoreak rock progresiboarekin hasi ziren taldeei (Errobi eta Itoiz, adibidez) txanda ematen ari zirenean, hard-rockak eta bereziki punkak itzelezko bultzakada eman zion talde berrien sorrerari. Talde horiek oso soinu eta letra gogorrek lantzen zituzten, bortitzak, erradikalak. Horregatik, UZTARO 113, 25-49



Popak bere muga estilistikoak zabaldu zituen, pop-rock gitarreroenetik soinu elektronikoraino. Teklatuen eta soinu teknologikoen (tecno-pop) presentzia indartu zutenen artean aipatzekoak dira Yazoo, Pet Shop Boys, OMD, Human League edo Depeche Mode. Tonu komertzial baina dotorea lantzen zutenen artean zeuden Spandau Ballet, Duran Duran, Wham eta megaizarrak, Michael Jackson, Prince eta Madonna, besteren artean. Gitarren presentzia nabarmenagoarekin, eta letretan adierazitako konpromiso sozial handiagoarekin, lortu zuten arrakasta U2, Simple Minds, Manic Street Preachers edo Talking Heads taldeek. Eta *New Wave* deitu zitzaion generoaren barruan, berriz, post-punketik zetozen taldeak zeuden, haien artean, Eurythmics, The Cars, The Go-Go's edo Men at Work, eta *indie* edo rock alternatiboan sailkatutako guztiak, haietatik asko kultuko bandak, nazioartean arrakasta lortu zutenak, The Smiths, The Cure, B-52's, esaterako, baita konpromiso handiko —soziala ez ezik politikoa ere bereziki— bandak ere, haien artean, REM, Nick Cave & The Bad Sees edo Midnight Oil<sup>23</sup>.

Estilo berri bat sortu zen gainera: rapa, rockaren soinutik urrunago. Abeslariak sortzen dituen errimak oinarria izanik, askotan rapak ez du musika-tresnarik behar eta *beat* delako musika-erritmoa nahikoa zaio. Hala ere, rockaren izaera inkonformistari utsita beltzen populazio estatubatuarraren egoera marjinala salatuzeko protesta-baliabide bat izan zen rapa. Artistetako batzuk oso komertzialak ziren (MC Hammer edo Vanilla Ice), beste batzuek, berriz, konpromiso handiagoa islatzen zuten, indarkeriaz baliatzeraino (Public Enemy) edo elkertasun bila (De la Soul).

Bestetik, «World music», hitzak dioen bezala, nazioartekotu egin zen. Musika ez-anglosaxoia zen, sustraiduna, hamarkadaren erdian Peter Gabrielek eta Paul Simonek bultzatua, Yossou N'Dour edo Khaled bezalako musikariekin. Batzuek supersalmentak lortu zituzten, haien artean, Johnny Clegg hegoafrikarrak eta Savuka bere taldeak, eta Magreben jatorria zuen Mano Negra frantsesak (ondoren, bakarka, Manu Chao). Talde zeltek ere arrakasta handia izan zuten, soinu puristena lantzen zutenek (Chieftains edo Clannad irlandarrak) baita pop musikara (Capercaillie eskoziarrak) edo rock musikara (Wolfstone eskoziarrak eta Oyster Band ingelesak) hurbiltzen zirenek ere.

1980ko hamarkada ekintza humanitarioen alde artistek eta taldeek elkarrekin batera parte hartzen zuten festibalengatik eta jarduerengatik nabarmendu zen. 1983an

---

1980ko hamarkadaren hasieran industria-birmoldaketaren eragin latzak jasaten ari zen gazteriak sortu zituen talde asko «euskal rock erradikala» izeneko mugimenduan batu ziren. Taldeen izenak oso adierazgarriak dira: La Polla Records, Barricada, Hertzainak, Zarama, Cicatriz, Eskorbuto, RIP, Kortatu, Delirium Tremens eta abar. Gai honen inguruan, ikusi, besteak beste: Delgado, A. (2018): «De los cantautores al Rock Radical. Una aproximación a la música popular y juventud en la vida política del País Vasco (1960-1990)», *Historia Contemporánea*, 57, 377-412; López, E. (2011): *Historia del rock vasco*, Aianai, Gasteiz; Moso, R. (2003): *Flores en la basura. Los días del rock radical*, Hilargi, Getxo; Muniesa, M. (2013): *La caza de brujas. Censura y persecución contra el rock vasco*, Quarentena, Bartzelona; Pardo, J. (2018): *Rock Radical Vasco: el invento de la Euskadi alegre y revoltosa*, autoargitalpena (Kindle/Amazon ebook); Pascual, J. (2015): *Movimiento de resistencia. Años 80 en Euskal Herria. Contexto, crisis y punk*, Txalaparta, Tafalla.

23. Australiako Midnight Oil taldea rock politikoaren adibide argienetakoa da. Haien lanak gizarte kapitalista modernotik sortutako diskurtso soziopolitikoaren norainokoa erakusten du, hau da, rocka tresna eraginkorra dela parte-hartze politikorako, erresistentziarako, disidentziarako eta kudeaketa publikoaren zaintza kritikorako (Bonastre, 2010: 57).



*Band Aid* diskoa ekoiztu zen Erresuma Batuan, Etiopiako gosetearen aurka dirua biltzeko helburuz. 1984an, *USA for Africa* diskoak zabaldu egin zuen helburu hura Afrikako kontinentea suntsitzen ari ziren goseteari eta gaixotasunei aurka egiteko<sup>24</sup>. 1985eko uztailean *Live Aid* festibala egin zen Londresen eta Filadelfian, eta bildutako dirua premia handiena zuten herrialdeetako pobrezari aurka egitera zuzendu zen<sup>25</sup>. Munduko lehenengo kontzertutzat hartua, *Live Aid* ekitaldi handi bat izan zen eta erakutsi egin zuen rockak amets berak betetzea zuela helburu (Assante, 2008: 48). 1988an *Human Rights Now!* nazioarteko bira egin zen, Nazioarteko Amnistiaren alde<sup>26</sup>. Igorritako mezuen hartzaileak kontuan hartuta, esan daiteke 80ko urteetako rockak, aurreko hamarkadan gertatu ez zen bezala, ez zuela asmozat instituzio tradizionalei azkena ematea, haiek hobetzea baizik (Bergamini, 2006: 57).

## 6. Globalizazioa: 1990eko hamarkada

1990eko hamarkada Gerra Hotzaren amaierarekin eta bloke komunistaren erorialdiarekin hasi zen, eta horrek kapitalismoa uzten zuen eredu ekonomiko nagusi gisa, herrialdeen arteko gero eta elkarren mendekotasun handiago baten testuinguruan; globalizazio izenez ezagutzen den fenomeno. Ekonomiaren arloan, fenomeno horren berezitasunak hauek dira: ekonomia nazionalak munduko merkatu-ekonomia batean integratzen dira, produkzio-moduak eta kapital-mugimenduak eskala planetario batean taxutzen dira, eta enpresa multinazionalak zeregin nabarmena betetzen dute.

Globalizazioak merkatuen eta nazioarteko merkataritzaren liberalizazioari emango zion bide, BMGren ondoren ezarritako nazioarteko ordena berriaren helburua, alegia. Horretarako, funtsezkoa izango zen nazioarteko organismo eta entitate ekonomikoen eginkizuna (NDF, Munduko Bankua, GATT), kontuan izanik premia handiena zuten herrialdeei laguntzen saiatuko zirela gainera, haien ekonomiak indartzearren. Dena den, herrialde horiei emandako gomendioak aurreko hamarkadan kritik ateratzeko neoliberalismotik martxan jarritako neurri berdintsuak izan ziren<sup>27</sup>. Horregatik deitu izan zaio globalizazio neoliberala ekonomiaren eremuan gertatutako globalizazioari.

---

24. *Band Aid* diskoan parte hartu zutenak, besteak beste: Sting, U2, Culture Club, George Michael, Duran Duran, Spandau Ballet eta Status Quo. *USA for Africa* diskoan: Lionel Richie, Michael Jackson, Bob Dylan, Tina Turner, Huey Lewis, Billy Joel, Stevie Wonder, Bruce Springsteen eta Paul Simon.

25. *Live Aid* festibalean parte hartu zutenak, besteak beste: The Who, Status Quo, U2, Paul McCartney, George Michael, Madonna, Elton John, David Bowie, Bryan Adams, The Rolling Stones, Tina Turner, Queen, Spandau Ballet, Sting, Sade, The Beach Boys, Dire Straits, Simple Minds, The Pretenders, Bob Dylan, eta abar.

26. *Human Rights Now!* biran Bruce Springsteenek, Peter Gabrielek, Stingek eta Tracy Chapmanek parte hartu zuten, baita tokiko artista famatuak ere (Espainian, El Último de la Fila).

27. Washingtoneko Ituna izenez ezagutzen den neurri ekonomikoen zerrrenda da, hasiera batean Latinoamerikako herrialdeetarako programa ekonomikoa osatzen zuten politiken zerrrenda, hamarkadan zehar gomendio gisa orokortu egin zena arazo ekonomikoak zituzten herrialdeentzat eta bereziki garapen-bidean zeudenentzat: diziplina fiskala, gastu publikoaren lehentasunen berrantolamendua, zergen erreforma, interes-tasen liberalizazioa, monetaren kanbio-tasa lehiakorra, nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa, atzerriko inbertsioen sarbidea erraztea, pribatizazioa eta desregulazioa. Neurri ekonomikoen zerrrenda horren jatorria John Williamsom estatubatuar ekonomialariaren *What Washington Means by Policy Reform* izeneko dokumentua izan zen, 1989ko azaroan Washingtonen egoitza duen Institute for International Economics erakundearen eman zuen hitzaldian aurkeztu zuena.

1995ean, GATT gaudituta eta hedatuta, Mundu Merkataritzaren Antolakundea (MMA) sortu zen, merkantzien salerosketa ez ezik (GATTen egitekoa), zerbitzuen eta ideien salerosketa ere liberalizatzea bultzatzeko. Horrela geratzen zen globalizazioaren testuinguruan ezarrita munduko ekonomia gidatzen zutenen organigrama: MMA, NDF eta Munduko Bankua<sup>28</sup>. Zalantzarik ez dago nazioarteko organismo horien jarduerak emaitza arrakastatsuak izango zituela, hamarkadan zehar Mendebaldeko herrialdeak etengabeko hazkundearen bidean sartuko baitziren, bloke komunista zaharreko herrialde gehienak barnean hartuta, baita garapen-bidean zeuden herrialde ugari ere. Hala, hazkunde-polo dinamiko berriak sortu ziren, BRIC taldea (Brasil, Errusia, India, Txina) eta gora egiten hasitako beste ekonomia batzuk ere.

Hala eta guztiz ere, gogoan izan behar dugu 1970eko hamarkadako krisiaren ondorioak gauditzea lortu zuen neoliberalismoak ez zuela lortu langabezia aurreko maila baxuetara gutxitzea. Horri aurre egiteko, 1990az geroztik enplegu-modu berritzaile eta malgu batzuk ezarri ziren, haien artean, lanaldi partzialeko kontratua, ikastun-kontratua edo lanaldia murriztea. Ondorioz, datu makroekonomikoek erakutsi bezala ekonomia indartu arren, lan-merkatuak globalizazio neoliberallean konpondu gabeko gaia izaten jarraitzen zuen, kontuan hartuta gero eta handiagoa izaten ari zela lan-prekarietatea, sindikatuek hainbestetan kontra egindakoa.

Egoera horretan, ez da harritzekoa 1990eko hamarkadaren hasieratik rock musikan sortu ziren estiloen artean grunge musika nabarmentzea. Seattlen sortua, X belaunaldiaren musika izan zen: nahigabearen eta, gerra hotza bukatuta, gerraoste berriaren belaunaldia. Sorburuetako rockaren baliokide zen grungea (gitarra, bateria eta baxua); heavyaren indarra eta punkaren oldarkortasuna, jarrera axolagabea eta isolamendua elkartzen zituen, eta oso erakargarria izan zen gazteentzat eta, bereziki, nerabeentzat. Giro goibelak eta itxaropenik gabeak islatzen zituztelako nabarmendu ziren grunge musikako abestiak, baita huts egitearen eta paranoiaren inguruko istorioengatik ere, oso arruntak garai hartako gazteen artean (Bergamini, 2006: 60). Hala, horrek pentsarazten digu mugimendua gazteen aldetik arreta erregutzen zuen adierazpide baten bilaketa izan zela (Méndez, 2004: 172). Indarrean ziren arau kulturaleri egiten zien desafioak, nahiz eta asaldatzeko asmorik ez erakutsi, eta 1980ko hamarkadan luxuari lotuta nagusitu zen rockari zion gaitzespenak bihurtu zuten grungea arrakastatsu<sup>29</sup>. Erreferentziazko banda Nirvana izan zen eta askorentzat taldeak iraun zuena iraun zuen grungeak, punkarekin eta Sex Pistolsekin gertatu zen bezala. Beste banda handi batzuk hauek izan ziren: Alice in Chains, Soundgarden, Stone Temple Pilots eta Pearl Jam. Punkarekin gertatu bezala,

---

28. MMA esportazioak eta inportazioak errazten saiatzen da herrialde guztiek izan ditzaten irabaziak nazioarteko merkataritzatik. NDFk nazioarteko operazio ekonomikoek ordainketak errazten ditu eta laguntza (teknikoa eta finantzarioa) ematen du herrialdeek nazioarteko merkataritzan parte hartu ahal izateko. Munduko Bankuak helburu berarekin ematen du laguntza, baina garapen-maila txikiena duten herrialdeei espezifikoki.

29. Deigarria zen 1990eko hamarkadaren hasierako gazteriaren kontraesana, zeren eta, gaitasuna erakutsi bazuen ere bere ingurune sozialaren kritika zorrotza adierazteko, ez baitzen gai izan kritika hori gauzatzeko. Abad-ek (2002: 11) nabarmendu bezala, neoliberalismoan bete-betean sartuta gazteriaren kritikaren ondorioz gabeko formalizazioa botere-joko baten emaitza da, non iraindu egiten baita kultura, baina itxuraz bakarrik, izugarritzko ahalmena duen nagusitasun-tresna gisa erabiltzen delako azken batean.

industria handiak fagozitu egin zuen grungearen autentikotasuna, baita mugatu ere azaleko estetika sinple batera, sistema zalantzan jarriko ez zuten produktuak saltzea lortzeko, eta xede hori betetzeko eduki politikoak edo gizartearen ahotan zebiltzanak fribolotzat eta aldendutzat ulertzen ziren (Gil, 2004: 14).

Aldi berean, Erresuma Batutik pop-rock gitarreroa gailendu zen, 1960ko hamarkadako berrasmatzen zuena: *Britpopa*, beste izen berri bat, baina historia propio bat sorrarazteko adina garrantzitsu (Sierra i Fabra, 2003: 387). Oasis eta Blur izan ziren liderrak, ugariak eta arrakastatsuek izan baziren ere sortutako bandak, haien artean, Supergrass, Pulp, The Verve, Suede, Radiohead (rock klasikoaren eta teknologia-aren arteko orekaren bila), Manic Street Preachers edo The Cramberries irlandarrak.

Bultzada horrekin, hamarkadaren bigarren erdian, jatorrizko rocketik gertuen zeuden estiloek (pop-rocketik heavyra) berreskuratu egin zuten rocketik gehien aldendu ziren beste estilo batzuek irabazitako eremua (pop melodikoa, rap, pop elektronikoa, talde komertzial huts-hutsak jarraitzaile gazteenei zuzenduak). Banda ugari sortu ziren, rock berria, rock alternatiboa edo garaje rocka bezalako terminoak erreskatatu zituztenak.

Rock alternatiboaren barruan aipatzekoak dira Alanis Morissette, Hootie & the Blowfish, Counting Crows, Matchbox Twenty, The Wallflowers, Silverchair edo P.J. Harvey. Soinu gogorrago batekin, Red Hot Chili Peppers, Green Day, Offspring edo Marilyn Manson. AEBko mendebaldeko kostan bizkortu egin zen heavy-metal abestien abiadura eta trash-metalek egin zuen agerraldia, besteak beste, banda hauekin: Metallica, Slayer, Anthrax edo Megadeth. Beste batzuek nahastu egin zuten heavy-metal musika estilo desberdinekin (hip-hop, grungea, rock alternatiboa eta funka), eta horrela sortu zen *nu-metal* edo *new-metal*, non arrakasta izan zuten taldeen artean aipatzekoak diren Korn, Limp Bizkit, Linkin Park, Deftones edo Evanescence.

Ekonomiaren ikuspegitik, hamarkadaren bukaeran erraldoi bat zen industria diskografikoa: 1999an 38.000 milioi dolar fakturatzen zituen munduan (AEBko sektore industrial osoaren balioa 15.000 milioi dolarrekoa zen bitartean) eta 3.800 milioi CD kasete eta minidisc saldu ziren planeta osoan (Frith, Straw eta Street, 2006: 13). Konpainia diskografikoek estilo guztiekin negozioa egin arren, 1990eko hamarkadan irabazi gehien eman ziena nerabeentzako pop komertziala izan zen, eta horren erakusgarri ditugu Spice Girls, Britney Spears, Back Street Boys, Christina Aguilera, N'Sync eta gainerako bakarlari eta talde klonak ere. Konpainiek berek sortuak guztiak, marketin-kanpaina erraldoiekin hedabideetan indartzen zituztenak. *Boy* eta *girls band* haiek marka bat bezala funtzionatzen zuten, sexuaren ezinbesteko erakargarriarekin saltzen ziren kontsumo-lerro desberdinekin batera (jantziak eta osagarriak, bereziki) (Gil, 2004: 15). Antzeko zerbait egin ohi zen, kalitate altuagoa erakutsi arren eta publiko helduagoari zuzenduta, pop melodikoaren izarrekin (Celine Dion, Mariah Carey edo Whitney Houston). Bai soinuari bai jarrerari dagokienez, rock mundutik aldentzen diren artistak dira oro har, azaleko gaiak adierazten dituztenak konposizioetan, inolako salaketa edo protestarik egin gabe munduan gertatzen diren bidegabekeriaren aurrean. Eta, hain zuzen ere, beharbada hori izan zen neurri batean haien arrakastaren izateko arrazoia, musika horrek eguneroko bizitzatik

deskonektatzeko balio zuelako, alegia. Nahiz eta, agintarientzat, gazteak (eta hain gazte ez zirenak) entretenituta edukitzeko ere balio zuen, gai garrantzitsuagoek eragindako kezketatik urruntzeko.

## 7. XXI. mendea

Mende berrian sartuta, bi gertakari izan dira —biak 2001ean— karga sinboliko handikoak, eta globalizazio neoliberalak indartu dutenak. Batetik, Txina MMAn sartu izana. Bere merkatu-sozialismoarekin aurrerapauso ikusgarriak eman ondoren, ordurako munduko bosgarren ekonomia bilakaturik (komunista eremu politikoan) erabat sartu zen nazioarteko merkatuan, kapitalismoa ez den beste aukerarik ez dagoela jakitera emanez. Bestetik, terrorismo fundamentalistaren bilakabidea. New Yorkeko Dorre Bikien eta Washingtonen Pentagonoaren kontrako erasoaren aurrean munduko terrorismoaren aurkako borroka eta defentsa nazionalak hartu zuten lehentasuna munduko agendan, eta giza eskubideen gainetik ere kokatu zen segurtasuna, erabaki ekonomikoetan eragin nabarmena izateraino, garapen-ara-  
zoak zituzten herrialdeei laguntza-funtsak bideratzea erabakitzeko garaian batik bat.

Kontua da, 1990eko hamarkadaren erdialdetik gertatzen ari zen moduan, munduko aberastasunak gora egiten jarraitu zuela 2008ra arte, magnitude makroekonomiko desberdinek ziurtatutakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, onak izan arren, datuek ez zuten lortzen kapitalismo keynesiarrek 1950eko eta 1960ko hamarkadetan lortutako hazkunde-erritmoa<sup>30</sup>. Gainera, desoreka handiagoa ikusten zen aberastasunaren banaketan, garapen-bidean ziren herrialde aurreratuenek eta industrializatuak (gorabidean dauden ekonomiak) hazkundearen bidetik irma jarraitzea lortu arren, hain garatuak ez zeuden herrialdeen egoerak okerrera egin zuen; hala, ondorioz, pobreakoak ziren XXI. mendea hasita 1990ean baino. Kontraesankorra zen globalizazioaren goren unean —merkatuak irekitzea erraztu eta garapen-bidean diren herrialdeentzat ere hazkundearen eragile izan behar zuen fenomeno— herrialde atzeratu gehienek mugatuta ikustea esportatzeko zuten gaitasuna hamabost edo hogeitun urte lehenago izandako mailetara. Hori, neurri batean behintzat, NDFk gomendatutako neurri ekonomikoen emaitza izan da, ekonomia garatuetan edo industrializatuetan aurrera eramanez daitezkeen neurriak baitira, nekez, ordea, garapen-bidean dauden herrialdeetan<sup>31</sup>.

30. Izan ere, munduko BPGaren urteko batez besteko hazkunde-tasa, 1950 eta 1973 urteen bitartean, % 5koa izan zen (1980ra arteko krisialdia ere kontuan hartuta, % 4,7koa izan zen); 1980 eta 2007 urteen bitartean, berriz, % 2,8koa izan zen. Bere aldetik, nazioarteko merkataritzaren bolumenaren gorakada (esportazioek neurtuta), 1950 eta 1973 urteen bitartean % 8,3koa izan zen urteko; 1980ra arte % 2,6ra murriztu ondoren, % 5,9 gehitu zen 2007ra arte. 1990etik hazi den magnitude bakarra atzerriko inbertsio zuzena da, globalizazioak ezaugarri dituen erraztasun teknologiko handiagoek ahalbidetua, nahiz eta egia den horrek kapital-fluxuen hedapena bultzatu duela, finantzarioa ez ezik, espekulatiboa ere, bereziki. Munduko Bankua (2019), *World Bank Open Data*, <<https://data.worldbank.org>> eta Nazioarteko Diru Funtza (2019), *Annual Reports Archives*, <<https://www.imf.org/en/Publications/SPROLLS/annual-reports-archives>> (bi kasuetan, kontsulta: 2019ko martxoan).

31. NDFren gomendioek honakoak eskatzen dituzte sarritan: aurrekontuaren saneamendu-politikak eta gastu publikoaren murrizketa, gastu soziala mugatuz; presio fiskala handitzea kanpo-zorra ordaintzeko; eta muga-zergen zotipoak ezabatzea nazioarteko merkataritzan parte izateko, horrek herrialdeentzat dituzten sarrereko urriak galtzea badakar ere.

XXI. mendea krisi berri batekin hasi zen musikaren industrian. Aldi hartan, ez zen ideia-gabezia, pirateria deitutakoak eragindako krisi ekonomiko bat baizik. *Top mantak* eta Interneteko atariak fitxategiak doan trukatzeko (adibidez, Napster, itxi aurretik famatuena) helmenean jartzen zituzten bakarlariekin eta taldeen abestiak, albumak kaleratu aurretik ere. Pirateriak tirabira komertzial batean sorburua duela esan daiteke, alegia AEBren eta Asiako hego-ekialdearen artean (Tailandia, Singapur eta Txina, nondik sortu baitziren legez kanpoko CD kopia gehienak 1980ko hamarkadaren amaieran). Baina beste ikuspuntu batetik uler daiteke pirateria, hain zuzen, rockaren inperialismoaren (angloestatubatuarra) ikuspegi sinplistegiarekiko hausturak eragindakoa, batetik musikaren industria globala Estatu Batuetakoa soilik ez delako, eta bestetik pirateriak batik bat tokiko grabazioak erasaten dituelako bereziki (Frith, 1999: 15).

Paradoxikoki, konpainia diskografikoek arindu egin zituzten pirateriaren ondorioak, agintariek aisia indartu izanari esker. Izan ere, nazioarteko terrorismo fundamentalistaren ekintzek gizartean izan zituzten ondorioak (batez ere 2001eko New Yorkeko erasoak baina baita 2004ko Madrilgoa edo 2005eko Londreskoa) zabaldu egin zuten izua eta horregatik indartu ziren distrakzioarako produktuak, zinemaren, telebistaren eta musikaren bidez eskainiak. Bitxia dirudien arren, gerra-garaietan, aisia eta *entertainment*a handitu egiten dira inguratzen gaituzten arriskuek eragindako beldur- eta ezegonkortasun-sentsazioa arintzearen (Sierra i Fabra, 2003: 40).

Musikaren eremuan bakarlari eta talde ugariaren agerraldiarekin nabaritu da hori; gehienak pop komertzialenetik sortuak, irratian eta Interneten izango dute bultzada, herritarren eta, bereziki, gazteen entretenimendua indartzeko asmoz. Xede horrekin, konpainia diskografikoek genero eta estilo berriak sortuko dituzte, merkatu bakoitzari zer genero mota dagokion erabakita eta, berriro ere, musika merkantzia bilakatuta (Frith, 2014: 148). Konpainia diskografikoek masa-hedabideez baliatzeak irabazi izugarri handiak ekarriko dizkie, haiek sortutako produktuak entzuleria espezifiko batean oinarrituta ezagun egin arren, azken urteotako adibide bat izan daiteke hurrek eta nerabezaroaren aurrekoek osatutako publikoarentzat propio sortutako merkatu musikala telebistako kate tematikoen, filmen estreinaldien eta ikonoen publizitatea egiteko argitaratzen diren aldizkari espezializatuen bitartez (Goialde, 2013: 8), Hannah Montana, Jonas Brothers, Selena Gomez edo One Direction-en kasuan, besteak beste<sup>32</sup>.

Dena den, irudi interesgarriak ere sortu izan dira estilo desberdinetan. Pop-rockean, nabarmendu egiten dira beren soinu dotoreagatik Maroon 5, Coldplay, Keane edo Snow Patrol taldeak. Hard-rockean, berriz, The Darkness, Airbourne, Audioslave edo The Answer. 1970eko hamarkadako elementu musikalak eta estetikoak berreskuratuz, rock alternatiboa eta post-punka elkartuta, atzera sortu da jatorrizko rocka The Strokes, The White Stripes, Kings of Leon edo Jet

32. Kontzertuei buruzko egunkarietako kritikak aztertu ondoren Maestrek (2014: 82) ondorio gogorak ateratzen ditu. Batetik, estilo komertzial horiek kaskarkeria intelektualaren, maila kultural eskasaren edo behe-klase sozialaren sinonimotzat hartzen ditu. Bestetik, gaur egun, estilo musikalen sailkapenean, posiziorik baxuenean kokatzen direla baliabide elektronikoak eta klixez, dantzaz eta melodia konbentzional bezalako gai sentimentalak baliatzen dituzten musikak.

taldeen eskutik; batzuek, esaterako The Killers, Franz Ferdinand edo The Bravery taldeek, ukitu elektronikoak ere gehitu dituzte. AEBn rapak eta hip hopak euren feudoa mantendu dute, Eminem, Jay Z, Nelly edo Black Eyes Peas-ek, adibidez. Eta soinu komertzialenaren barruan, kalitatearen alde apustu egiten duten artistak nabarmentzen dira, haien artean, Beyoncé, Alicia Keys, Nelly Furtado, Gwen Stefani edo Robbie Williams.

Ugariak dira 2000z geroztik indarberrituta ageri diren estiloak eta generoak, denboraren joana gainditu eta desagertuko ez direnak. Hala, adibide batzuk aipatzearren hauek ditugu: doom metal, death metal, ska, punk klasikoa, LA hardcore, garaje psikodelia, funk, indie pop, rockabilly, swing, laurogeiko urteetako electrobeata, musika elektroniko alemana eta beste hainbat estilo, oraindik ere hor jarraitzen dutenak beren biziraupena bermatzen duten jarraitzaileen sareetan (Straw, 2006: 107).

Beste hainbeste gertatzen da jaialdiekin. Alde guztietatik ugalduta dira, diskosalmentetatik izandako diru-sarrera txikiagoak konpentsatzeko. Hala, alde batetik, banda kontsokratuen zuzeneko kontzertuak show erraldoiak izango dira harrezkero eta, bestetik, festibalak antolatzen hasiko dira (batez ere udan eta bi edo hiru eguneko iraunaldikoak) non bakarlari eta talde beteranoak artista berriekin batera agertuko diren karteletan, adin guztietako entzuleak erakartzeko eta sekulako irabaziak lortzeko. Hala ere, jaialdi horietako batzuek gizateria eta mundua erasaten duten arazo larriak eta injustiziak salatzen ere balio izango dute. Hori dela-eta, nabarmentzekoa da *Live Aid 8*ren garrantzia: 2005eko uztailan egin zen —jatorrizko jaialdia egin zenetik hogeitau urtera— G8 osatzen duten herrialdeetako hiri desberdinetan, garapen-bidean dauden herrialdeei kanpo-zorra barkatzea eskatzeko helburuz. Baita *Earth Live*ren garrantzia ere: 2007ko uztailan egin zen herrialde garatuak eta garatzeko bidean dauden zenbait hiritan, helburutzat hartuta klima-aldaketaren ondorioez populazioa kontzientziatzea, fenomeno horri aurre egiteko herrialdeak presionatzea, eta energia berriztagarrien alde irmo apustu egitea<sup>33</sup>.

## 8. Azken gogoetak

2000ko hamarkadaren hasieratik igo egin zen lehengaien prezioa, eta espekulazio-mugimendu nabariak sortu ziren balioen burtsetan; ondorioz, ahuldu egin zen sistema, ezin baitzion eutsi 2008an AEBn sortutako krisi finantzarioari. Hainbestetan aipatu izan diren *subprime* hipotekek —sektore finantzarioaren dirugosearen produktu izarra— likidezia-arazo bat sorrarazi zuten, Mendebaldeko herrialde gehienetan sektore guztien jarduera ekonomikoa erasan zuena.

---

33. *Live Aid 8* festibalan (Londres, Filadelfia, Paris, Berlin, Erroma, Tokio, Toronto, Mosku, Johannesburgo, Edinburgo) parte hartu zutenak, besteak beste: Sting, U2, REM, Pink Floyd, Elton John, Coldplay, Robbie Williams, Bon Jovi, Rob Thomas, Madonna, The Who, Bryan Adams, Duran Duran, Stevie Wonder, Paul McCartney, Black Eyes Peas, Def Leppard, Linkin Park, Destinys Child, The Cure, Roxy Music, Sheryl Crow, Yossou N'Dour, Greenday, Deep Purple, Jet, The Corrs, Texas, Annie Lenox, Travis, eta abar. *Live Earth* festibalan (Sidney, Tokio, Shanghai, Hamburgo, Londres, Kioto, Washington, Johannesburgo, New York, Rio de Janeiro): Genesis, Snow Patrol, Black Eyes Peas, Duran Duran, Red Hot Chili Peppers, Keane, Metallica, Madonna, Alicia Keys, Bon Jovi, The Smashing Pumpkins, The Police, Crowded House, UB40, Linkin Park, Rihanna, Lenny Kravitz, Foo Fighters, eta abar.



Globalizazio neoliberalaren erantzuna hauxe izan zen: administrazio publikoek beren gain hartzea sektore finantzarioaren zorrak, banku zentraletatik banku pribatuei funtsak injektatuz eta haien zorra sozializatuz (oraindik osorik kobratu ez direnak). Krisitik irteteko hartutako neurriak 1980ko hamarkadako neoliberalismoaren kopia berri bat dira, kontuan hartuta gainera agintariak doikuntza-neurritzat hartu dituztela, herritarren artean murrizketatzat (gastu sozialean batik bat) jo diren bitartean.

Aurreko egoeretan bezala, aisia bultzatuko da gizartearen kezkek arintzeko eta horixe izan da orokortu den ezaugarria herrialde gehienetan. Hala, entretenimenduaren industriak kulturaren osagarri izateari utzi eta hura ordeztatu du helburu, dibertsiorako azaleko edukiekin. Musikaren arloan, horren ondorio dugu krisian zehar pop komertzialena indartu izana eduki gatzgabeekin eta, paradoxikoki, indar handiagoz krisiaren irtenaldian. Hortaz, aurrean dugun egoera da ospeak eta aberastasunak, berehalako aisiak eta *guztiak balio du* ideia postmodernoak liluratutako gizarte baten adierazpena (Gil, 2004: 16). Ikusten den bezala, are eta indar handiagoa hartzen du Midnight Oil taldeko kide Rob Hirstek adierazitakoak bandak *Australian Hall of Fame*-n gehitu izana ospatzeko 2006ko urrian egindako zeremonian; hark esandakoaren arabera, protesta-rocka idazten jarraitu arren, industria diskografikoak baztertu egiten du, hipnotizatuta baitago *get-famous-fast TV show*sez.

Bada pentsatzen duenik aro berri bat hasi dela, *copy-paste* aroa alegia, non industria diskografikoaren estrategiak zenbaki estatistikoetan oinarritzen baitira: funtzionatzen duen soinua sustatzen da bakarrik (Sánchez, 2012: 31). XXI. mendearen hasieran, musikaren nazioarteko merkaturak lau enpresaren eskuetan geratu da, rock musikan espezializatutako korporazioetakoak ez direla kontuan hartuta<sup>34</sup>. Antza denez, hirurogeita hamar urtetan zehar musikariak haien plantilletatik kentzea eta sail artistikoen gainetik marketinari are eta garrantzi handiagoa ematea izan da aldaketa nabarmen bakarra, beti salmentak handitzeko helburuarekin (Gil, 2004: 16). Grunge musikaren ondoren adierazi zen bezala, nahiz eta rocka bere sorburuan funtsean bizitasun handiko mugimendu eragile gisa agertu, ez dirudi inolako iraultzarik egiteko aukerarik dagoenik (Abad, 2002: 9-10).

Hala eta guztiz ere, posible da baita ere krisiaren aurrean protesta-mugimendu inkonformista bat topatzea, bai krisiaren errudunak bai doikuntza-neurrietan izandako gehiegikeriak salatzeke. Eta hori argi ikusten da duela hamarkada batzuk kontsokratutako bandetan eta artistengan, baina baita duela gutxi sortutako beste batzuegan ere. Nolabait esateko, musikako izar guztien ezaugarri bat da, zeinak inoiz ez diren elikatu ikaratzeko moduko ideia kontserbadoreez, kontuan izanik, aitzitik, erakutsi egin dutela aurrera egiteko bokazioa, gauzak hobetzearen aldeko sentimendu anarkiko antzeko bat (Ruiz, 2006: 9). Era berean, jarrera hori rock musikatzat hartzen den horretan biltzen diren estilo eta genero desberdinetatik sortzen den jarrera da: rockaren soinu gogorrean (hard/heavy-rocketik trash-metalera), aldenduenean eta gitarrak ia baliatzen ez den horretan (rap, hip-hop, reggae), baita teoriarik komertzialenak diren soinuetan ere (pop, funky, disco).

---

34. Universal, BMG-Sony, EMI eta Warner, 2003rako munduko salmenten hiru laurden berenganatuta zituztenak.



Hainbesteko dibertsitatearen aurrean hau esan daiteke: gaur egun ez da rock bakar bat existitzen, rock askotarikoak baizik, elkarrekin topo egin eta elkarrekin nahasten direnak, gurutzatzen diren gazte-hizkuntzak eta soinu zaharrak, desagertu baina indarberrituta itzultzen direnak (Assante, 2008: 52). Are gehiago, esan daiteke rock musikak planetako leku desberdinetan biltzen dituen elementu komunek ahalbidetu egiten dutela kulturen hurbiltzea<sup>35</sup>.

Ikus daitekeenez, rock fenomenoaren osagaitzat hartutako adierazpide musikalak elkarrekiko desberdinak dira, bai gaur egun bai eboluzionatu izan duen aldi osoan zehar ere, halakoa delako bere izaera eta garatu izan den testuingurua. Izan ere, rocka fenomeno sozial eta kultural nabarmen bat da, eta halakotzat ezagutu eta definitzen da gizartearen zirkunstantzietan eta bizitzea egokitu zaion garaietan. Zentzu horretan, gogoan izan behar dugu rocka Mendebaldean sortu eta bertan hazi dela nagusiki, merkatu askearen sistema ekonomiko baten barruan eta, hortaz, mundu kapitalistaren osagai bat da. Rockak eredu ekonomiko horren barruan eboluzionatu du eta, beraz, binilozko diskoak erostetik, orain, abestiak Internetetik mugikorrera jaistera pasa gara; oso kalitate kaskarreko soinu-ekipoekin kontzertuak ematetik, orain, mundu erdiko hedabideetan oihartzuna duten ikuskizun erraldoi eta jendetsuetara.

Gainera, kapitalismoaren osagai delako lortu du rockak mugimendu masibo eta unibertsal bat izatea, industriaren parte baita. Adierazten dituen idealetatik eta balioetatik harago, rocka, adierazpide kultural gisa, industriaren eta merkantilizazioaren logikak inposatutako kanonetatik antolatzen da eta haien menpe dago (Serbia, 2018: 77). Izan ere, izaeraz menderakaitza bada ere, produktu errentagarri bat da rocka, irabaziak eta onurak dakartzana, munduko edozein lekutan saltzen baitira diskoak (are gehiago orain momentuan eros daitezkeenean online musikako fitxategiak). Protesta eta salaketa inoiz ez lirateke masiboak izango, diskoak saldu izan ez balira. Hortaz, horrek esan nahi du rockak eraso egiten zion sistemari esker dela orain guztion artean ezagun. Era berean, XXI. mendean globalizazioak berak ahalbidetzen du planetako bazter guztietara heltzea rockak globalizazio neoliberalaren aurka biltzen duen protesta soziala.

## Bibliografia

- Abad, L.A. (2002): *Rock contra cultura*, Biblioteca Nueva, Madril.
- Adell, J-E. (1998): *La música en la era digital*, Editorial Milenio, Lleida.
- Allende Portillo, F. (2007): «El contexto económico de la música popular en el siglo XX», in A. García Lupiola (zuz.), *Economía y Rock. La influencia de las relaciones internacionales y la economía mundial en el rock*, UPV-EHU, Leioa, 99-118.
- Assante, E. (2008): *Leyendas del Rock. Artistas, instrumentos, mitos e historia de 50 años de música*, Blume, Bartzelona.
- Bergamini, A. (2006): *El rock y su historia*, Robinbook, Bartzelona.

---

35. Japoniako neska talde bat, Turkiako hip-hop talde bat, flamenko kutsua duen Espainiako rock talde bat entzutean... munduko edozein lekutako pop-rock jarraitzaileek beti aurkituko dituzte adibide horietako batzuetan soinu elektrifikatuak edo elektronikoak, ahots-teknikak, eta esaldi musikal batzuk, haien musika nazionala gogora ekarriko dietenak (Regev, 2013: 179).

- Bonastre, R. (2010): «Resposta social i proposta política des de la música popular. El cas de Midnight Oil a Austràlia (1997-2004)», *Revista Forma*, 1, 57-63.
- Cagle, V.M. (1995): *Reconstructing pop subculture: art, rock and Andy Warhol*, SAGE Publications, Londres.
- Calero Carramolino, E. (2013): «El anhelo de lo prohibido. Ian Curtis y Joy Division, las dos caras de una misma moneda. La transición del post-punk al gothic-rock. Desde The Sex Pistols hasta Siouxsie & The Banshees», *Herejía y belleza: Revista de estudios culturales sobre el movimiento gótico*, 1, 313-332.
- De la Fuente Soler, M. (2007): «Tumbarse en los raíles. La presencia de la música rock en la política internacional», in A. García Lupiola (zuz.), *Economía y Rock. La influencia de las relaciones internacionales y la economía mundial en el rock*, UPV-EHU, Leioa, 119-136.
- , (2014): «Amy 27. Amy Winehouse y el Club de los 27 años / Howard Sounes», *Eu-topías: revista de interculturalidad, comunicación y estudios europeos*, 7, 152-154.
- Del Pozzo, D. eta Esposito, V. (2009): *Rock around the screen: storie di cinema e música pop*, Liguori Editore, Napoli.
- Egan, S. (2009): *100 años de música*, Blume, Bartzelona.
- Frith, S. (1999): «La constitución de la música rock como industria transnacional», in L. Puig eta J. Talens (ed.), *Las culturas del rock*, Pre-Textos, Valentzia, 11-30.
- , (2006): «La música pop», in S. Frith, W. Straw eta J. Street, *La otra historia del Rock. Aspectos clave del desarrollo de la música popular: desde las nuevas tecnologías a la política y la globalización*, Robinbook, Bartzelona, 135-154.
- , (2014): *Ritos de la interpretación. Sobre el valor de la música popular*, Paidós, Buenos Aires.
- Frith, S.; Straw, W. eta Street, J. (2006): «Introducción al pop y al rock», in S. Frith, W. Straw eta J. Street, *La otra historia del Rock. Aspectos clave del desarrollo de la música popular: desde las nuevas tecnologías a la política y la globalización*, Robinbook, Bartzelona, 13-22.
- García Lupiola, A. (2011): *Kanpo Merkataritza eta Nazioarteko Elkarkidetzak Ekonomikoa*, UPV-EHU, Leioa [<http://ikasmaterialak.ehu.eus>].
- , (2014): *Ekonomia Garaikidea*, UPV-EHU, Leioa [<http://ikasmaterialak.ehu.eus>].
- Gil, P. (2004): *El pop después del fin del pop: entrevistas*, Ediciones RDL, Bartzelona.
- Gilbert, J. eta Pearson, E. (2003): *Cultura y políticas de la música dance. Disco, hip-hop, house, techno, drum'n'bass y garaje*, Paidós, Bartzelona.
- Goialde Palacios, P. (2013): «Música popular/músicas urbanas», *Musiker*, 20, 7-18.
- Jones, S. (1992): *Rock formation: music, technology and mass communication*, SAGE Publications, Londres.
- Keightley, K. (2006): «Reconsiderar el rock», in S. Frith, W. Straw eta J. Street, *La otra historia del Rock. Aspectos clave del desarrollo de la música popular: desde las nuevas tecnologías a la política y la globalización*, Robinbook, Bartzelona, 155-194.
- Kouvarou, M. (2015): «American Rock with a European Twist: The Institutionalization of Rock'n'Roll in France, West Germany, Greece and Italy (20th Century)», *Historia crítica*, 57, 75-94.
- Kutschke, B. (2018): «Resistance and heroization in protest songs in the U.S. in the 1950s: Maintaining communist political identity during the McCarthy era», *Historia Contemporánea*, 57, 325-348.
- Maestre Brotons, A. (2014): «El discurso sobre la música popular contemporánea: crítica artística y divulgación periodística», *Cultura, Lenguaje y Representación. Revista de estudios culturales de la Universitat Jaume I*, 13, 69-83.

- Méndez, S. (2004): *Limusinas y estrellas. Medio siglo de rock 1954-2004*, Espasa, Madril.
- Munduko Bankua (2019): *World Bank Open Data*, <<https://data.worldbank.org>>.
- Nazioarteko Diru Funtsa (2019): *Annual Reports Archives*, <<https://www.imf.org/en/Publications/SPROLLS/annual-reports-archives>>.
- Regev, M. (2002) «The “Pop-Rockization” of Popular Music», in D. Hesmondhalg eta K. Negus (ed.), *Popular Music Studies*, Hodder Arnold Publication, Londres, 251-264.
- , (2013): *Pop-rock Music. Aesthetic Cosmopolitanism in Late Modernity*, Polity Press, Cambridge.
- Rowe, D. (1995): *Popular cultures: rock music, sport and the politics of pleasure*, SAGE Publications, Londres.
- Ruiz, J. (2006): *Plásticos y Decibelios. Toda la música de nuestro tiempo*, Aguilar, Madril.
- Sánchez, M. (2012): «Música en vivo: se hace camino al tocar», in *Live Music Experience*, AlhondigaBilbao, Bilbo.
- Serbia, J.M. (2018): «La domesticación de la cultura rock y la racionalización de la espontaneidad», *Hologramática*, 28, 19-109.
- Sierra i Fabra, J. (2003): *La era rock (1953-2003)*, Espasa, Madril.
- Straw, W. (2006): «El consumo», in S. Frith, W. Straw eta J. Street, *La otra historia del Rock. Aspectos clave del desarrollo de la música popular: desde las nuevas tecnologías a la política y la globalización*, Robinbook, Bartzelona, 87-111.
- Tinari, F.D. eta Khandke, K. (2000): «From Rhythm and Blues to Broadway: Using Music to Teach Economics», *Journal of Economic Education*, 31-3, 253-270.
- Velarde Revilla, P.M.; Allende Portillo, F. eta García Lupiola, A. (2007): *Las relaciones internacionales contemporáneas. La relevancia de la economía en el desarrollo de la actual sociedad internacional*, BBK, Bilbo.
- Ward, P. eta Delgado, A. (2018): «Introducción: Música popular, identidad y política», *Historia Contemporánea*, 57, 321-324.

